

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

106/2020 Foru Agindua, ekainaren 1ekoa, hasierako onespena ematen diona i-DE redes Eléctricas Inteligentes SAU (Iberdrola taldea) enpresak sustatutako proiektuaren interes publikoaren adierazpeneko espedienteari. Proiektua: 30 kV-ko aireko eta lurpeko bi linea, zirkuitu bikoitze-koak, "BT Gasteiz-Salburua 1 eta 2" eta "BT Gasteiz-Arana 1 eta 2"; Gasteizko BT eta "A" kutxatila- ren eta 901350600 "Varsovia. Obrak" transformazio zentroaren artean, Arratzua-Ubarrundia eta Gasteizko udalerrietan, Zurbaotik hurbil dagoen zatian, Arratzua-Ubarrundia udalerriko lurzoru urbanizaezinean

i-DE redes Eléctricas Inteligentes SAU (Iberdrola taldea) merkataritza sozietateak Arratzua-Ubarrundiako Udalari obratarako lizentzia eskatu dio proiektu honetarako: 30 kV-ko aireko eta lurpeko bi linea, zirkuitu bikoitze-koak, "BT Gasteiz-Salburua 1 eta 2" eta "BT Gasteiz-Arana 1 eta 2"; Gasteizko BT eta "A" kutxatila- ren eta 901350600 "Varsovia. Obrak" transformazio zentroaren artean, Arratzua-Ubarrundia eta Vitoria-Gasteizko udalerrietan. Baimen hori da Uribarri Arratzuatik Salbururantz, Zurbaoko ekialdetik, doan proiektuaren zatirako, zeina baitago udal horretako lurzoru urbanizaezinean.

Arratzua-Ubarrundiako Udalak espediente bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientean dago Arratzua-Ubarrundiako Udalean aurkeztutako proiektu teknikoaren separata, non jasotzen baita 30 kV-ko GTko lau linea elektriko berriren diseinua, Vitoria-Gasteizko ekialdean hornidura elektriko indartzeko. Memoriaren 1. puntuan jasota dago proiektuak hainbat tarte egitea dakarrela, Arratzua-Ubarrundiako udalerritik gertu, batzuk lurpekoak eta besteak airekoak. Lehenengo tarte BT "Gasteiz"tik abiatzen da lurpetik; bigarrena airekoa da, eta xede du A-1 autobidea gurutzatzea; hirugarren tarte lurpekoa da, eta Zurbaoko herriaren ekialdean dagoen bidearen azpitik doa, eta hartara, REEko linea elektrikoaren azpiko pasabidea erraztu eta herrietatik gertu dauden linea berrien aurkako alegazioei erantzuten die. Sekzionamendu zentro bat aurreikusten da, huraxe ere landa lurzoruaren kokatzekoa (837 lurzatia, 3 poligonoa), eta, ondoren, aireko tarte bat Zurbaoko hego ekialdean, Dulantzi ibaiaren eta A-2134 errepidearen gaineko gurutzagunea errazteko, eta, azkenik, lurpeko beste tarte bat Arkautiko Akademiaren iparraldeko bidetik, Salburutik Vitoria-Gasteizera iritsi arte.

Halaber, memorian jasotzen da kontuan hartu direla aurreko proiektu bati aurkeztutako alegazioak, eta ingurumen arloko foru erakundearekin adostu dela trazadura.

Udal arkitektoak eginiko txostena ere espedientean dago, eta besteak beste, hau dio: "... proyecto que nace de la Subestación S. T. Vitoria situada en Ullibarri Arrazua y se dirige en línea recta hacia Salburua por el este de Zurbano, finalizando prácticamente en el vértice sur de nuestro municipio, próximo a la academia de policía en Arkaute. Desde ahí se dirige a Vitoria rodeando la academia por el norte y las localidades de Elorriaga y Arkaute por el sur hasta entrar por Salburua.

El trazado empieza en aéreo desde la subestación hasta cruzar la autovía Vitoria-Alsasua. En la parte que discurre frente a Zurbano se lleva todo el trazado soterrado por un camino de parcelaria en dirección Norte-Sur. Cuando termina la parcelaria, y antes de haber finalizado el tramo frente a Zurbano, el trazado vuelve a ser aéreo girando hacia el suroeste en dirección hacia la academia de la policía de Arkaute.

Según el PGOU, el trazado común discurre prácticamente en todo su trayecto por suelo calificado como Zona Preservada – Zona de Interés Agroganadero (J.25) – además de atravesar Sistemas Generales de Comunicaciones Viarias (E.11) y de Comunicaciones Ferroviarias (E.3), y puntualmente Zonas de Especial Protección – Zona Agroganadera y de Campiña (J.15) – y – Zona de Protección de Aguas Superficiales (J.17). También se atraviesan Áreas de Vulneración de Acuíferos, Red de Corredores Ecológicos, Áreas de Protección de Caminos Rurales y Áreas de Protección de Acueductos Subterráneos.

En ambas zonas atravesadas por la infraestructura y calificadas como de Especial Protección (J.15 y J.17), se permite la instalación prevista según el PGOU: En la J.15 ... “Edificaciones, construcciones e instalaciones de utilidad pública o interés social que, por su naturaleza y características deban emplazarse de modo ineludible en esta zona”; y en J.17 ... se permiten “... las relativas a labores agroforestales, a las obras públicas e instalaciones de infraestructuras o a las acciones de protección del patrimonio cultural debidamente justificadas”

En la Zona Preservada de Interés Agroganadero (J.25) también se permite de forma genérica: edificio, construcción o instalación de utilidad pública o interés social, que por su naturaleza y características deba emplazarse en el medio rural (art. 1.6.1.2.13.a) (...)

Por otra parte, además de todo lo indicado anteriormente, afectan los siguientes condicionantes superpuestos adicionales: Red de Corredores Ecológicos y Áreas de Protección de Acueductos Subterráneos y Aéreos.

Con respecto a la Red de Corredores Ecológicos: ... ii. La autorización de usos constructivos así como cualquier otro uso que implique afecciones sobre los corredores ecológicos, en especial para los espacios con especial función conectora recogidos en la estrategia de conectividad ecológica y paisajística del Territorio Histórico de Álava, requerirá de informe previo de valoración específico sobre la magnitud de los efectos ambientales, a emitir por el órgano foral en materia ambiental, que valorará la magnitud de los efectos y, en su caso, propondrá las medidas protectoras y/o correctoras a adoptar. (...)

iii. Las intervenciones deberán garantizar la condición de corredor ecológico asociada al ámbito delimitado. Los planes o proyectos que desarrollen usos, edificios, construcciones e instalaciones autorizados por la calificación del suelo en la que se incluyan corredores ecológicos deberán incluir un proyecto de restauración ambiental y adecuación paisajística acorde al entorno de los mismos.

(...)... se ha tramitado el correspondiente Documento Ambiental para su evaluación, habiendo obtenido ya la Declaración de Impacto Ambiental según Resolución del 27-01-20 del Director de Administración Ambiental del Gobierno Vasco. Por tanto, no es necesario informe del Departamento de Medio Ambiente de Gobierno Vasco ni del Servicio de Medio Ambiente y Biodiversidad de Diputación al proyecto por haberse solicitado para el trámite ambiental”

Arratzua-Ubarrundiako Udalak bidaliriko eskaerarekin batera hau bidali da: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2020ko urtarrilaren 27ko Ebazpena, zeinaren bidez ingurumen inpaktuaren aldeko adierazpena egiten baita eta proiektua egiteko baldintzak ezartzen baitira, eta lotesleak dira, bat etorri Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 47.2 artikuluan aurreikusitakoarekin.

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta Sailaren Egitura Organiko eta Funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bat etorri Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, "lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legeriak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaraturako zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hogei egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren".

Bigarrena. Aztertutako kasuan, hasierako onespena izapide bat baino ez da, hots, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du xedatzen, inondik inora, behin betiko onespenerako hartu beharreko erabakirik.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hasierako onspena ematea i-DE redes Eléctricas Inteligentes SAU (Iberdrola taldea) merkataritza sozietateak sustatutako proiektuaren interes publikoaren adierazpeneko espedienteari. Proiektua: 30 kV-ko aireko eta lurpeko bi linea, zirkuitu bikoitzekoak, "BT Gasteiz-Salburua 1 eta 2" eta "BT Gasteiz-Arana 1 eta 2"; Gasteizko BT eta "A" kutxatilarren eta 901350600 "Varsovia. Obrak" transformazio zentroaren artean, Arratzua-Ubarrundia eta Gasteizko udalerrietan, Zurbaotik hurbil dagoen zatian, Arratzua-Ubarrundia udalerriko lurzoru urbanizaezinean.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean jartzea hogei egunez, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Aldi horretan nahi duen orok nahi dituen alegazio guztiak aurkeztu ahal izango ditu. Interesdunek Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuan azter dezakete espedientea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 1a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO